

Rafael Cristobal psikiatrak bere azken liburua aurkeztu du hezkuntzari buruzko jardunaldietan

2007/12/14

Rafael Cristobal psikiatra eta irakasleak bere azken liburua aurkeztu du HUHEZIn: "**Fundamentos del ser humano: una psicología para educadores**". Bere ondoan zituen Hubert Montagner pedagogo frantses entzutetsua, Alexander Barandiaran Hazitegi proiektuko zuzendaria eta Euskal Herriko pedagogo eta irakasle asko, aurkezpena egin baita hezkuntzari buruzko jardunaldi batzuetan: "Hezkuntzari begirada, psikologiaren eskutik".

Egitaraua

Bilerak egun osoa iraun du, eta bertan parte hartu dute goi mailako adituek.

09:00 Sarrera: dekanoa anderea.

09:15 Hitzaldia. Juanjo Agirrezabala: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ikuspegia 0-3aren inguruan. Garrantzia eta erronkak.

09:45 Hitzaldia. Hubert Montagner: Umearen garapenaren klabeak haurtzaroan.

11:00 Atsedena.

11:30 Rafael Cristobalen azken liburuaren aurkezpena: "Fundamentos del ser humano: una psicología para educadores".

12:00 Hitzaldia. Alexander Barandiaran: Hazitegi proiektua. Gure hezkuntza egitasmoa.

12:20 Galderak eta eztabaida.

12:45 Bazkaria.

15:00 Hitzaldia. Hubert Montagner: Erritmo kognitibo eta biologikoen errespetuaren garrantzia.

